



Euskarara hurbildu
nahi dutenei harrera
egiteko ekimena


Parte hartu!

Rachid Lanbide Heziketan
hasi zen iaz, elektronika
ikasten. Han ezagutu
zuen Leire, bere irakaslea
eta honek gonbidatu
zuen AUZOKOra. Ordutik
gustura elkartzen da
astero taldekideekin
eta oso gustuko ditu
elkarrekin egiten dituzten
ekintza eta irteerak.

باسک زبان
کے ذریعے

ZUBI BAT
EUSKARATIK

Leire Rachiden irakaslea
da. Auzotarra. Auzokideei!
euskarara gerturatzeko
laguntza eskaintzeko
eman zuen izena
AUZOKOra. Hori lortzeaz
gain, zituena aurkeztu!
asko ere deseralki ditu.



AUZOKO egitasmora gonbidatu nahi zaitugu!

AUZOKO ezagutzen al duzu?

Euskara, aniztasuna eta herritarrak barne biltzen dituen egitasmoa da. Euskaratik urrun bizi direnak euskarara hurbiltzeko, eta gure herriko errealitate eleanitza eta kulturantza ezagutzuz, elkarbizitza berdintasunean eraikitzeko aukera bat da.

Herritar, guztion arteko kohesio- eta **komunikazio-hizkuntza euskara izatea** da gure helburu nagusia. Horretarako, astean behin batzen gara, hainbat dinamika eta jolas euskaraz egiteko.

Herritarrak biltzen dira AUZOKOn, euskaratik gertu bizi direnak eta euskaratik urrun bizi direnak. Euskarara hurbildu nahi baduzu, edo **euskarara hurbildu nahi dutenei bidean lagundu nahi badiezu**, zatoz AUZOKOra egitasmoa guztiona egiteko

Saio batera etorri eta AUZOKO ezagutzeko prest al zaude?

AUZOKOn herritar orok parte hartu dezake:

Auzotarra

Euskaratik gertu bizi diren herritarrak (Euskal Herrian jaioak izan edo ez), euskaraz aritu ohi direnak.



Martinek euskaltegian ikasi zuen euskara eta gaur egun euskaraz bizi da. Euskarak zabaldu dion mundu berrirako zubia eskaini nahi die Auzokideei. Auzotarra denetik asko ikasi du!



Izaskun ezer eskatu gabe hasi zen AUZOKOn, bere bizipenak partekatzeko prest. Baina, trukean, asko jaso du: beste hainbat errealitate ezagutu ditu, Auzokideekin batera.



Ane duela 4 urtetik dabil AUZOKOn. Ousmane sukaldari trebea da, eta taldekideei errezeta goxoak egiten irakatsi die. Sukaldaritza eta euskara, hori bai konbinazio ederra!

Auzokidea

Euskaratik urrun bizi diren herritarrak (Euskal Herritik kanpo jaioak izan edo ez), euskaraz ez beste hizkuntza batean aritu ohi direnak.



Cristinak bulego batean lan egiten du, eta bi urte daramatza AUZOKOn parte hartzen. Martinek bere garaian egin zuen bezala, euskaltegian izena eman du aruten. Euskararen komunitatea handitzen doa...



Loli duela 14 urte etorri zen Euskal Herrira. Berak dioen moduan, euskarak hegoak ematen ditu, eta berak euskararekin hegan egin nahi du. AUZOKOri esker euskaraz harreman berriak egin ditu, eta aruten ere gogotsu dabil!



Ousmanek 4 urte daramatza Euskal Herrian. Bere auzokidea den Ane AUZOKOn ezagutu zuen. Euskarazko hainbat hitz ezagutzen zituen, baina gehiago ikasi nahi ditu. Ikasteaz gain, lagun bikainak ere aurkitu ditu!

auzoko